

DIRULAGUNTZETARAKO PROGRAMEN OINARRI ESPEZIFIKOAK

1. PROGRAMA: FEDERAZIO-EGINKIZUN SOZIALA GARATZEA, ANTOLAKUNTZA-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK, TALDE TEKNIKOAREN OSAERA, BIDAIK, EMAKUMEEN SUSTAPENA EGITEA, DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEK KIROLA EGITEA ETA PARTE HARTZEKO KIROL-PROGRAMAK

Dirulaguntzen programa honetarako zenbatekoa: 190.000 €

Edukia

1.-HELBURUA	2
2.- LAGUNTZEN ZENBATEKOAK	3
3.- ENTITATE ONURADUNAK	3
4.-ESKABIDEA AURKEZTEA	4
5.-ESKABIDEAK EGITEKO EPEA	4
6.-AURKEZTUTAKO ESKABIDEAN HUTSAK ZUZENTZEA	4
7.-ESKABIDEAK ONARTZEA	4
8.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK	4
9.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA	10
10.- DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA.....	10
11.- DIRULAGUNTZEN ALDAKETA	12
12.- DATUEN BABESA.....	12
13.- DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA	13

1. HELBURUA

Dirulaguntzak ematea honako hauetarako: federazio-eginkizun soziala garatzea, antolakuntza-irizpide espezifikoak, talde teknikoaren osaera, bidaiak, emakumeen sustapena, dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirola eta parte hartzeko kirol-programak.

1. LOTEA: Federazio-eginkizun soziala garatzea

- Kirolak, oro har.
- Kirol minoritarioen lizentziak
- Futboleko lizentziak 11-9-7
- Herri Kiroletako lizentziak
- Emakumezkoen lizentziak
- Kirol egokituko lizentziak

2. LOTEA: Antolakuntza-irizpide espezifikoak.

- 3K ziurtagiria duten klubak.
- Ez izatea Bilbao Kirolak udal entitatearen kirol instalazioak erabiltzen dituzten klubak, eta Bilbao Kirolak udal entitatean abonatutako kirolarien federazio-lizentziak egiaztatzea.

3. LOTEA: Kluben talde teknikoaren osaera.

- Gizonezkoak.
- Emakumezkoak.

4. LOTEA: Bidaiak.

- Estatuko eta autonomia-erkidegoko lehiaketak.

5. LOTEA: Klubetan emakumeen sustapena egitea.

- Emakumeek osatzen dituzten taldeen lehiaketa.
- Emakumeek osatutako klub-zuzendaritzak.

6. LOTEA: Dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirola.

7. LOTEA: Parte hartzeko kirol-programak dauzkaten klubak edo elkarteak.

- Kirol-jarduerak jarraitasunez egitea.

- Neskatoen eta emakumeen kirola sustatzeko programak.
- Dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirola eta kirol inklusiboa sustatzeko programak.

2.- LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

	1. PROGRAMA: federazio-eginkizun soziala garatzea, antolakuntza-irizpide espezifikoak, talde teknikoaren osaera, bidaiak, emakumeen sustapena, dibertsitate funtzionala duten pertsonen kirola eta parte hartzeko kirol-programak.		LOTEA GUZTIRA
LOTEA			
1	Federazio-eginkizun soziala garatzea	Klubaren lizentziak guztira (BK abonatuak)	105.000 €
		Kirol minoritarioen lizentziak (BK abonatuak)	
		Futboleko lizentziak 11-9-7 (BK abonatuak)	
		Herri kiroleko lizentziak (BK abonatuak)	
		Emakumezkoen lizentziak (BK abonatuak)	
		Kirol egokituko lizentziak (BK abonatuak)	
2	Antolakuntza-irizpide espezifikoak	3K ziurtagiria duten klubak	5.000 €
		BKko kirol-instalazioen erabiltzaileak ez diren klubak eta BK instalazioetako kirolarien lizentziak egiaztatzea	3.000 €
3	Klubaren talde teknikoaren osaera	Gizonezkoak	4.000 €
		Emakumezkoak	6.000 €
4	Bidaiak	Ohikoak	15.000 €
5	Klubetan emakumeen sustapena egitea	Emakumez osatutako taldeak	11.000 €
		Emakumezko zuzendariak	8.000 €
6	Kirol egokitua	Taldeak	5.000 €
7	Parte hartzeko kirol-programak	Jarduera jarraituen programak	13.000 €
		Neskentzako eta emakumeentzako jarduera-programa	9.000 €
		Dibertsitate funtzionala eta inklusiboa duten pertsonentzako programak	
			6.000 €
			190.000 €

Informazio guztia Bilbao Kirolak udal entitatearen web-gunean dago eskura:
www.bilbaokirolak.eus

3.- ENTITATE ONURADUNAK

a) Dirulaguntza hauek eska ditzaketen kirol entitateek, nahitaez:

- Eusko Jaurlaritzaren Kirol Entitateen eta Federazioen Erregistroan izena emanda egon behar dute.
- Bilbon eduki behar dute egoitza.
- Federazio- edo eskola-lehiaketa batean egon behar dute izena emanda.
- IFZ bat eduki behar dute (Identifikazio Fiskaleko Kodea).
 - Bilbao Kirolak udal-entitatearen instalazioak erabili behar dituzte beren jardueretarako, eta balorazio-irizpideak bete behar dituzte (7. puntua).
 - Bilbao Kirolak udal-entitatearen kirol-instalazioak erabiltzen ez dituzten kirol-entitateek.

b) Entitate onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Dirulaguntzen Lege Orokorren 14. artikuluan eta harekin lotura dutenetan ezarritakoak.
- Bilbao Kirolak udal-entitatearen zerbitzuen araudiak ezarritakoak.
- Beren-beregi, kirol entitate bateko kide den pertsona batek hirugarren bati alokatzen badio edo kobratzen badio Bilbao Kirolak udal-entitatearen instalazioen erabilerarengatik, entitate horrek:
 - Instalazioen erabilera guztiak ordaindu beharko ditu.
 - Jaso dituen dirulaguntzak itzuli egin beharko ditu.

4. ESKABIDEA AURKEZTEA

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira, Bilbao Kirolak webgunean eskuragarri egongo den aplikazioaren bidez..

5. ESKABIDEAK EGITEKO EPEA

20 egun natural, deialdia BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala). Azken eguna baliogabea bada (larunbata, igandea edo jaieguna), hurrengo egun baliodunera aldatuko da

6. AURKEZTUTAKO ESKABIDEAN HUTSAK ZUZENTZEA

Baldin eta eskabidea:

- Ez badago ondo beteta.
- Agiriak falta badira.

Bilbao Kirolak udal-entitateak abisua emango dio entitateari edo pertsona fisikoari eskabideko hutsak zuzen ditzan. Hamar (10) egun balioduneko epea izango du horretarako, abisua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta. Hala egin ezean, Bilbao Kirolak udal-entitateak ezetsi egingo du eskaera.

7. ESKABIDEAK ONARTZEA

Eskabidea ezetsi egingo da, baldin eta:

- Ez bada aurkeztu jardueraren memoria, puntuazio-irizpideetan adierazitako eskemari eta aldagaiei jarraituz:
 - Ez badator bat Bilbao Kirolak udal-entitatearen lerro estrategikoekin.
 - Ekitaldia ez badator bat ezarritako helburuekin.
 - Ekitaldia ez bada bideragarria teknikoki edo ekonomikoki.

Erakundeek 2024ko dirulaguntzak aurkezteko dokumentazioa izeneko eranskina bete eta erantsi behar dute, bai eta eskabidea aurkeztu duten lote bakoitzeko eranskin espezifiko guztiak ere.

8 BALORAZIO-IRIZPIDEAK

1. LOTEA: FEDERAZIO-EGINKIZUN SOZIALA GARATZEA:

**FEDERAZIO-EGINKIZUN
SOZIALA GARATZEA**

	Bilbao Kirolak abonamendua DAUKAN kirolaria BAKARRIK		
	Adina (urtarrilaren 1ean betetzen dela joko da)		
	17 urtekoak edo gorakoak	15 eta 16 bitartekoak	13 eta 14 bitartekoak
Klubaren lizentziak guztira	6 puntu	5 puntu	3 puntu
Kirol minoritarioen lizentziak	3 puntu	2 puntu	1 puntu
Futboleko lizentziak 11-9-7	3 puntu	2 puntu	1 puntu
Kirol estrategikoetako klubetako kirolarien lizentziak	3 puntu	2 puntu	1 puntu
Emakumeen kirol lizentziak	4 puntu	3 puntu	2 puntu
Dibertsitate funtzionala daukaten kirolarien lizentziak	5 puntu	4 puntu	3 puntu

Lizentzien guztirako kopurua baloratuko da, eta adinaren arabera emandako puntuazioekin biderkatuko da. Kirol estrategikoetako kide izatea, emakume kirolarien lizentziak eta dibertsitate funtzionaleko kirol modalitate bateko kide izatea metatu egin daitezke berezitasun moduan. Adibidez: 13 eta 14 urte bitarteko adingabe baten lizentzia, adingabe horrek herri-kirolak egiten baditu, emakumezkoa bada eta dibertsitate funtzionala badauka: $3+1+2+3 = 9$ puntu.

Entitateko gehienezko zenbatekoa: 8.000 €

2. LOTEA: ANTOLAKUNTZA-IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK

IRIZPIDEA	KALKULATZEKO MODUA	BALIA DAITEKEEN KOPURUA
3K ziurtagiria edukitzea	Ziurtagiri hori duten eta hala egiaztatzen duten klub guztien artean hainbanaketa egingo da	5.000 €.
BK instalazioak erabiltzen ez dituzten klubak, baina BKn abonatu dauden kirolariak dauzkatenak	Lizentzien guztirako kopuruaren balioa kalkulatzeko baliagarri dagoen zenbatekoaren arabera. Klub bakoitzari honela esleituko zaio: daukan lizentzien kopurua bider puntu bakoitzaren balioa.	3.000€

Kasu bietan, gehienezko zenbatekoa, entitateko, ez da izango 1.000 € baino gehiago.

3. LOTEA: KLUBEN TALDE TEKNIKOAREN OSAERA

Klubeko behatzaileek edo entrenatzaileek egiaztatutako formazio teknikoaren maila baloratuko da; haiek, ostera, beren jarduera denboraldi osoan zehar garatu behar dute, eta lan-kontratu bat edo boluntario-hitzarmen bat eduki behar dute klubarekin.

1. maila: Behatzailea.
2. maila: Entrenatzaile autonomikoa, Kiroleko LH (Lanbide Heziketa) edo kirol arloko diploma.
3. maila: Estatuko mailako entrenatzailea edo Gorputz Jardueren Zientzietako lizentzia edo gradua.

SEXUA	3. maila	2. maila	1. maila	BALIA DAITEKEEN ZENBATEKOA
GIZONEZKOAK	8	5	5	4.000 €
EMAKUMEZKOAK	8	5	5	6.000 €

Gehienezko zenbatekoa, entitateko, ezin da izan 1.000 € baino gehiago.

4. LOTEA: BIDAIAK

Eskatzen duen klubaren taldeek zein lehiaketatan parte hartzen duten eta zer geografia-eremu duten, horren arabera baloratuko da. Bidaia ohikoei nahiz ezohikoei aplikatu ahal zaie. Kontuan hartuko dira:

Estatu mailako lehiaketak, eta bidaiak zenbat egun behar dituen.

Autonomia erkidegoko lehiaketak, eta bidaiak zenbat egun behar dituen..

		Estatu mailako lehiaketak	Autonomia- erkidegoaren mailako lehiaketak	Lurrakdeko lehiaketak	Balia daitakeen zenbatekoa
Ohikoak	Klubak	5 puntu kirolari bakoitzeko, bider egun kopurua	2 puntu kirolari bakoitzeko, bider egun kopurua	0 puntu	15.000 €

Gehienezko zenbatekoa ohiko bidaietan, entitateko, ezin da izan 2.500 € baino gehiago.

Lizentzien gehienezko kopurua, kirol modalitate bakoitzeko, hau izango da:

KIROLA	Federazio lizentzia duten pertsona diruz lagunduen gehienezko kopurua
---------------	--

Saskibaloia, eskubaloia, boleibola, areto-futbola	16
Beisbola, errugbia eta futbola	20
Beste modalitate batzuk	10

5. LOTEA: KLUBETAN EMAKUMEEN SUSTAPENA EGITEA

Atal honetan, klubon zuzendaritzan eta kirolarien artean emakumezkoak izatea baloratzen da. Horretarako, aintzat hartzen dira bi alderdi hauek:

- Emakumeek osatutako taldeak
- Zuzendaritza-taldeetan emakumeak izatea kide

	Balia daitekeen kantitatea	LIZENTZIAK		
		17 urtetik gorakoa	15 eta 16 urte bitartekoak	13 eta 14 urte bitartekoak
Emakumeek osatutako taldeak	11.000 €	5	5	3
		Zuzendaritza batzordearen osaketa		
Emakume zuzendariak	8.000 €	Zuzendaritza-taldearen %	Zuzendaritza-taldearen % 50	
		12	8	

Gehienezko zenbatekoa, entitateko, ezin da izan 2.000 € baino gehiago.

6. LOTEA: DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN KIROLA

Atal honetan, dibertsitate funtzionala duten pertsonen osatutako taldeak baloratzen dira.

		17 urtetik gorakoa	15 eta 16 urte bitartekoak	13 eta 14 urte bitartekoak
Dibertsitate funtzionala duten pertsonak dauzkaten taldeak	5.000 €	6	5	3

Gehienezko zenbatekoa, entitateko, ezin da izan 2.000 € baino gehiago.

7. LOTEA: PARTE HARTZEKO KIROL PROGRAMAK DAUZKATEN KLUBAK EDO ELKARTEAK

JARDUERA JARRAITUEN PROGRAMA

2024an (edo 2023 – 2024 kirol-denboraldian) Bilboko udalerrian egindako kirol-programa jarraituak, guztiek parte hartzeko kirolaz gozatzeko aukera izan dezaten, kirol-jarduera osasungarria, aisialdikoa, integratzailea eta jarraitua lortuz (ez da lehiaketa federatuko kirolaz ari).

50 puntu lortu behar dira gutxienez, dirulaguntzaren lote honen onuradun izateko.

Gehienezko zenbatekoa, entitateko, ezin da izan 1.000 € baino gehiago.

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	ERAGINA	JARDUNALDIAK	AURREKONTUA.	BK-REN DESKONTUA.	BERDINTASUNA	INKLUSIOA	EUSKAR A
Jarduera jarraituen programa	13.000 €	20	20	10	10	15	15	10

- Eragina: gehienez ere 20 puntu.
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (45 urte baino gehiago).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (25 eta 45 urte bitartekoak).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu.
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (6 eta 25 urte bitartean).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu.
- Jardunaldi kopurua: gehienez ere 20 puntu.
 - Programak 15 jardunaldi edo gehiago baditu: 20 puntu
 - 9 eta 14 jardunaldi artean baditu: 10 puntu.
 - 9 jardunaldi baino gutxiago baditu: 0 puntu.
- Aurrekontua: gehienez ere 10 puntu.
 - Programaren aurrekontu osoaren % 25 baino gutxiago eskatzen bada: 10 puntu
 - Programaren aurrekontu osoaren % 25 baino gehiago eskatzen bada: 5 puntu
- Bilbao Kirolak udal-entitatean abonatuak pertsonen deskontua: 10 puntu gehienez ere.
 - Programa horrek deskontuak edo abantailak eskaintze badizkie BKn abonatuak pertsonen: 10 puntu.
 - EZ baditu eskaintzen: 0 puntu.
- Berdintasuna: gehienez ere 15 puntu.
 - Emakumeentzako programa berriazkoa: 15 puntu
 - Antolakuntzako boluntarioen eta langileen artean % 40 baino gehiago emakumeak Badira: 10 puntu.

- Programak baditu berariazko proposamenak emakumeek parte hartzeko: 5 puntu.
- Inklusioa: gehienez ere 15 puntu.
 - Inklusiorako berariazko programa: 15 puntu
 - Ez da berariaz inklusiorako, baina baditu hitzarmenak arlo horretako elkarteekin: 10 puntu.
- Euskara: gehienez ere 10 puntu.
 - Jarduera guztiak euskaraz egingo dira: 10 puntu.
 - Ez da berariazkoa, baina euskara erabiltzen da web-gunean eta sare sozialetan 5 puntu
 - Ez da berariazkoa, baina euskara erabiltzen da karteletan eta prentsan: 2 puntu

JARDUERA-PROGRAMA EMAKUMEENDAKO ETA NESKATOENDAKO

Eskabidearekin batera entregatu behar diren justifikazio-memoriek egitura bat izan behar dute, puntuazio-irizpideak osatzen dituzten alderdien hurrenkeraren arabera, eta, hurrenkera horren arabera egin ezean, eskabidea baztertu egingo da.

50 puntu lortu behar dira gutxienez, dirulaguntzaren lote honen onuradun izateko.

Gehienezko zenbatekoa, entitateko, ezin da izan 1.000 € baino gehiago.

KONTZEPTUA	ZENBATE KOA	ERAGI NA	JARDUNAL DIAK	AURREKON TUA.	DESKON TUA BK	INKLUSI OA	EUSKA RA
JARDUERA PROGRAMA EMAKUMEEN DAKO ETA NESKATOENDAKO	9.000 €	30	15	10	15	15	15

- Eragina: gehienez ere 30 puntu.
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (45 urte baino gehiago).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 30 puntu
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (25 eta 45 urte bitartekoak).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu.
 - Belaunaldi anitzeko jarduerak izatea (6 eta 25 urte bitartean).
Gutxienez 10 parte-hartzaile jarduera bakoitzeko 20 puntu.

Gainerako irizpide eta puntuazioak "jarduera jarraituen programaren" kasu orokorrean bezala, salbu eta berdintasunarena, ez baita puntuatzen atal honetan.

DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN KIROL PROGRAMA ETA PROGRAMA INKLUSIBOAK

Eskabidearekin batera entregatu behar diren justifikazio-memoriek egitura bat izan behar dute, puntuazio-irizpideak osatzen dituzten alderdien hurrenkeraren arabera, eta, hurrenkera horren arabera egin ezean, eskabidea baztertu egingo da.

50 puntu lortu behar dira gutxienez, dirulaguntzaren lote honen onuradun izateko.

Gehienezko zenbatekoa, entitateko, ezin da izan 1.000 € baino gehiago.

KONTZEPTUA	ZENBATEK OA	ERAGINA	JARDUNALD IAK	AURR EKON TUA.	DESKON TUA BK	BERDINTAS UNA	EUSKARA
DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEN KIROL PROGRAMA ETA PROGRAMA INKLUSIBOAK	6.000 €	30	15	10	15	15	15

Balorazio irizpideak antzekoak dira honetan eta aurreko bi programetan, salbu eta inklusioa, ez baita baloratzen kasu honetan.

9 DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Lote guztietan, eta haietako bakoitzean, hainbanaketa egingo da, eta hau izango da formula:

- Eskatzaileek eskuratu dituzten puntuak batzen dira.
- Puntuaren balioa kalkulatzen da, loteetako bakoitzari emandako zenbatekoaren eta eskatzaile bakoitzak guztira ateratako puntuazioaren arteko koefizientea kalkulatuz.
- Eskatzaile bakoitzak ateratzen duen zenbatekoa izango da haietako bakoitzak ateratako puntuak puntu bakoitzaren balioarekin biderkatuta ateratzen den emaitza.

10 DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

- Federazi-eginkizun soziala garatzea:
 - Gastuaren % 100 justifikatu beharko da¹.
- Entitateak honako hauek aurkeztu beharko ditu:
 - Entitatearen identifikazioa.
 - Gastuaren deskribapena; gastuak zuzeneko zerikusia izan behar du diruz lagundutako jarduerarekin.

¹ 38/2003 Legea eta Bilboko Udalak eta haren organismo eta zuzenbide publikoko entitateek dirulaguntzak deialdi bidez emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorra (BAO, 2016-07-20, 138. zk.)

- Gauzatutako jardueren memoria.
- Dirulaguntza jaso duen entitatearen taldeen argazkia, bakoitza bere jantzi ofizialarekin jantzita.
 - Bilbao Kirolak udal entitatearen logotipoa egongo da jantzian.
 - Argazkiaren formatua elektronikoa izan beharko da.
- Denboraldiko diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Ordainketa egin dela egiaztatzen duten agiriak:
 - Programaren epearen barruan.
 - Gastuaren guztizkoaren arabera
 - Diruz lagundutako zenbatekoa adinakoak edo handiagoak.
 - Inprimaki ofiziala beteta (ORDAINAGIRIEN ZERRENDALABURPENA- 4. ERANSKINA).
 - Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.
- Aurkezteko epea: 2 hilabete, honela kontatuta:
 - jarduera amaitzen denetik (denboraldia amaitzean)
 - Dirulaguntza ordaintzen denetik, amaitu ondoren bada.
- Agiriko hutsak egiaztatzea eta zuzentzea:

Bilbao Kirolak udal entitateak aztertu egingo ditu aurkeztutako agiriak, ea zuzen dauden eta guztiak dauden egiaztatzeko.

Hala ez bada, idazki bat bidaliko dio entitateari, honako hauekin:

 - Eskatuko dio zuzentzeko hutsa eta/edo aurkezteko falta diren agiriak.
 - Adieraziko dio ezen, hala egin ezean, ezetsi egingo duela eskabidea.

Entitateak 10 egun natural edukiko ditu, abisua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, hutsa zuzentzeko eta/edo agiriak aurkezteko.
- Entitatearen edo pertsona fisikoaren betebeharra:

Dirulaguntza zein jardueratarako eskatu zuen, gauzatu egin behar du hura. Aldaketaren bat eginez gero, jakinarazi egin beharko dio Bilbao Kirolak udal entitateari, aurretiaz.
- Penalizazioa:

Entitateak itzuli egin beharko ditu jasotako diru-zenbatekoak eta berandutze-interesak², baldin eta:

- Ez badu justifikatzen.
- Justifikazioa ez bada behar bestekoa.
- Dirulaguntza zein jardueratarako eskatu zuen, ez badu betetzen hura.

11. DIRULAGUNTZEN ALDAKETA

Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartu zen parametroetako bat aldatzen bada, dirulaguntza ere aldatu ahal izango da, baldin eta zertarako eskatu zen eta hartarako erabili bada.

12. DATUEN BABESA

- Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak: BILBAO KIROLAK – Udalaren Kirol Erakundea, tokiko organismo autonomoa. Nafarroa 5, 4. solairua. 48001 Bilbo
- Datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak: datos@bilbao.eus
- Tratamenduaren helburua: Pertsonentzako edo entitateentzako laguntza publikoak eta dirulaguntzak kudeatzea, kirola sustatzearekin zerikusia dutenean.
- Datuak gordetzeko denbora: Datuak gordeko dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran.
- Tratamenduaren oinarri juridikoa: Tratamendua beharrezkoa izatea interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoez baliatuz bete beharreko misio bat betetzeko.
- Norentzat diren: Kontuen Auzitegia, aldizkari ofizialetan argitaratzea eta Dirulaguntzak eta Laguntza Publikoak Publizitatearen Sistema Nazionalean argitaratzea.
- Eskubideaz baliatzea: Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeke eskubidea du, bai eta datuak tratatzeari mugak jartzeko edo aurka egiteko ere. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Nafarroa kalea 5, 4. solairua 48001 Bilbao helbidera. Era berean, dagokion kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Agentzia) erreklamazioa egiteko eskubidea du.

² Dirulaguntzen Lege Orokorreko 37. artikulua 1. atalean ezarrita dagoenaren arabera.

13. DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

- Kirol entitate onuradunek, beren kirol-jantzi ofizialean, Bilbao Kirola udal entitatearen logotipoa eroan behar dute, 15 x 7 cm tamainakoa edo handiagoa. Bilbao Kirolak berak emango du logotipoaren diseinua.
- Aurreko ataletan ezarritakoa era batera edo bestera betetzen ez bada, dirulaguntzaren % 100 itzuli beharra gerta liteke.
- Euskara eta gaztelania erabili beharko dira:
 - Sortzen diren publizitate-testuetan.
 - Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten jendaurreko esku-hartzeetan.
 - Megafonia bidezko mezuak (lehenengo euskaraz, eta gero gaztelaniaz).